

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

78. zenbakia

Data 2000-04-26

6685 orria

---

### 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK

**Apirilaren 11ko 300/2000 Foru Agindua, telekomunikazio operatzaileen hiruhileko aitorpenaz**

---

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

##### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*Apirilaren 11ko 300/2000 FORU AGINDUA, telekomunikazioetako operadoreen udal zergen hiruhileko aitorpen-likidazioari buruzko 810 eredia onartzen duena.*

Telekomunikazioetako operadoreen udal zergei buruzko azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauaren bitartez, operadore horiek sortutako udal zergak likidatzeko sistema berezi bat ezarri da, salbu Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionean. Sistema horren arabera, urteko konpentsazio bat izango da, eta operadoreek udalerrri bakoitzean lortzen duten fakturazioaren sarrera gordinen 100eko 2a ordainduko dute.

Abenduaren 21eko 115/1999 Foru Dekretuak, azaroaren 10eko 5/1998 Foru Araua garatzen duenak, 3.2 artikuluan xedatzen duenez, telekomunikazioetako operadoreek ekitaldiko behin betiko aitorpen-likidazioaren kontura hiruhileko aitorpen-likidazioak aurkeztu beharko dituzte. Hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa foru dekretu horretako 1. artikuluan jasotako portzentaiak (1,9 eta 0,1) aurreko ekitaldian operadore horiek sortutako sarrera gordinen 100eko 25ari aplikatuz ateratzen den kopurua izango da.

Hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa aurreko parrafoaren arabera zehaztu ezin denean, jarduera aurreko urte natural osokoa izan ez delako, edota jarduera hasi denean, hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa operadoreak propo- satutako estimazio batetik abiatuta lortuko da.

3. artikulua 5 apartatua jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztuko da hiruhileko aitorpen-likidazioa, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak onartutako eredian. Besteak beste, zorraren zenbateko osoa adierazi beharko da. Gainera, udalerrri bakoitzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren fakturazioari eta partaidetza kalkuluari buruzko xehetasuna sartu beharko da.

Agindu hori betez, telekomunikazioetako operadoreen udal zergen hiruhileko aitorpen-likidazioaren eredia onartuko da.

Gauzak horrela, hau,

XEDATU DUT

*1. artikulua. 810 eredia onartzea.*

Bat. Telekomunikazioetako operadoreen udal zergen hiruhileko aitorten-likidazioaren 810 eredia onartu da. Foru Aginduaren eranskin moduan erantsita doa.

Bi. Udal zergen erregimen bereziari lotuta dauden telekomunikazioetako operadoreek erabili beharko dute eredu hori, azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauak 3. artikuluan eta ondorengoetan eta abenduaren 21eko 115/1999 Foru Dekretuak, aipatu foru araua garatzen duenak, jasotakoaren arabera.

Hiru. 810 eredia hiruhilero aurkeztuko da eta, horretarako, ekitaldiko behin betiko aitorten-likidazio bat egingo da. Hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa aurreko ekitaldian telekomunikazio operadoreek sortutako sarrera gordinen 100eko 25ari ondoko portzentaiak aplikatuz ateratzen den kopurua izango da: 1,9 udaletarako; eta 0,1 Gipuzkoako Foru Aldundirako.

Hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa aurreko parrafoaren arabera zehaztu ezin denean, jarduera aurreko urte natural osokoa izan delako, edota jarduera hasi denean, hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa operadoreak proposatutako estimazio batetik abiatuta lortuko da.

*2. artikulua. Aurkezpen epea.*

Aitorten-likidazioan adierazi behar den hiruhilabetearen azken hilabetean aurkeztu eta, hala badagokio, ordaindu behar da 810 eredia.

*3. artikulua. Aurkezpen epea.*

Bat. Zergabilketaren Erregelamenduan bilketan laguntzeko baimenduta dauden entitateetako batean aurkeztu beharko da 810 eredia.

Bi. Likidazioaren ondorioz konpentsatu beharreko kopuru bat edo zero ateraz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerga bulegoetan ere aurkeztu ahal izango da.

*Xedapen iragankorra.*

2000ko lehen hiruhileko aitorten-likidazioa aurkezteko epea urte horretako apirilean luzatuko da.

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2000ko apirilaren 11a.—Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(5015) (3905)



